



**NAFARROAKO KUTXA BANKU FUNDAZIOA
LAGUNTZEN DEIALDIA
2018. URTEA**

AURKIBIDEA

<u>1. AURKEZPENA</u>	3
<u>2. DEIALDIAREN XEDEA. EKINTZA LERROAK</u>	3
<u>3. DEIALDIAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK</u>	6
<u>4. PROIEKTUAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEAK</u>	7
<u>5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK</u>	8
<u>6. BALORAZIO IRIZPIDEAK</u>	10
<u>7. NAFARROAKO KUTXA FUNDAZIOAREN EKARPENA</u>	12
<u>8. DEIALDIAREN EBAZPENA</u>	13
<u>9. LANKIDETZAREN FORMALIZAZIOA</u>	14
<u>10. LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA</u>	14
<u>11. LANKIDETZAREN HEDAPENA</u>	16
<u>12. DATUEN BABESA ETA INFORMAZIOAREN TRATAERA</u>	16

1.-AURKEZPENA

Nafarroako Kutxa Banku Fundazioa (aurrerantzean, “Nafarroako Kutxa Fundazioa”) banku fundazio pribatu bat da, irabazi asmorik gabekoa, eta, 2014ko ekainaren 27an onartutako estatutuen arabera, Nafarroaren aurrerabide sozial, ekonomiko eta kulturala du xedetzat.

Nafarroako Kutxa Fundazioak abian jarri nahi du 2018. urterako laguntzen deialdia, honako hauek sustatzeko Nafarroan: gizarte gaiak, kultura eta hezkuntza, kirola eta ingurumen jasangarritasuna.

Laguntzak erakunde publiko edo pribatuentzat izan daitezke, baldin eta ez badute irabazi asmorik eta Nafarroako Foru Erkidegoan helbideratuta badaude.

Deialdi honetatik kanpo gelditzen dira Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioa eta haren mende edo hari lotuta diharduten erakunde autonomoak eta enpresa erakunde publikoak, sozietate eta fundazio publikoak barne.

2.- DEIALDIAREN XEDEA. EKINTZA LERROAK.

2.1. GIZARTE GAIEN LERROA

Ekintza lerro honen helburua gizarte proiektuak babestea da; proiektuek eremu hauetan jardun behar dute:

- Autonomiaren sustapena eta desgaitasunari arreta: autonomia pertsonala garatzen eta desgaitasunen bat dutenen bizi kalitatea hobetzen laguntzen duten ekintzak sustatu edo areagotzeko proiektuak.
- Mendekotasunari arreta (adibidez, gaixotasun neurodegeneratiboak, gaitz kronikoak eta gaixotasun arraroak): autonomia pertsonalaren sustapena, mendekotasunaren prebentzioa eta bizi kalitatearen hobekuntza. Laguntza psikosoziala gaixoarentzat eta familiarentzat.
- Emakumeen pobrezia eta gizarte bazterkeriaren aurkako borroka: oinarrizko beharrei erantzutea.
- Garapenerako lankidetzak: elikadura, osasuna, higiena, pertsonen heziketa eta oinarrizko gizarte azpiegiturak.
- Boluntarioen sustapena eta kudeaketa, gizarte gaien lerroko edozein eremutan.
- Genero berdintasunaren sustapena: aukera berdintasuna, emakumeek arlo publikoan parte hartzea, erantzunkidetasuna eta kontziliazioa bultzatzen dituzten proiektuak.

- Adinekoen autonomiaren eta horiei begirako arretaren sustapena: mendekotasunari aurre hartzen eta adinekoen bizi kalitatea hobetzen laguntzen duten proiektuak.

2.2. KULTURA ETA HEZKUNTZAREN LERROA.

Ekintza lerro honen helburua da kulturarekin, artearekin eta hezkuntzarekin erlazionatutako proiektuak babestea, arreta berezia eskainita honako hauek sustatzen dituzten proiektuei:

- Kultura eskura izateko aukera berdintasuna zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboentzat.
- Publiko berriak erakartzea, bereziki haurrak eta gazteak.
- Sormen eta adierazpen artistikoa inklusiorako eta partaidetzarako tresna gisa, gizartearen eraldaketan eta gizarteratzean eragina izateko.

Kultura eta artea sustatzeko hainbat diziplinako proiektuak babestuko dira, honako hauetakoak, besteak beste:

- Musika.
- Arte eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: dantza, antzerkia eta zinema.
- Arte plastikoak.
- Liburua eta literatura.
- Nafarroako kultura ondarearen kontserbazioa eta hedapena: Nafarroako kultura ondarea babesteko, kontserbatzeko, leheneratzeko, ikertzeko eta hedatzeko proiektuak, baita Nafarroako kultura tradizionala eta folklorea sustatzekoak ere.
- Berrikuntza eta sormenaren beste adierazpen batzuk: arte garaikidearen arloan ikerketak egiteko eta obrak ekoizteko proiektuak.

Era berean, hezkuntzaren arloan izaera berritzaile handiko proiektuak babestuko dira.

2.3. KIROLAREN LERROA

Ekintza lerro honen helburua da kirolarekin lotutako proiektuak babestea, arreta berezia eskainita emakumeen partaidetza sustatzen duten neurri zein ekintzei. Proiektuen jardun eremua kirol amateurraren sustapena izango da, honako hauen sustapena, besteak beste:

- Klubetako oinarriko kirola.
- Federazioetako oinarriko kirola.

- Herritarren artean interes, garrantzi eta ospe handia duten amateurrentzako kirol ekitaldiak.

2.4. INGURUMEN JASANGARRITASUNAREN LERROA

Ekintza lerro honen helburua da ingurumen jasangarritasunarekin lotutako proiektuak babestea, eta proiektu horien jardun eremua gure ingurune naturalari begirako sentsibilizazioa, ezagutza eta babesa izango da, hala nola:

- Ingurumen arloko boluntariotzaren sustapena.
- Ekosistemen leheneratzea eta kontserbazioa, paisaiaren eta galzorian dauden espezieen babesa sustatuz.
- Ingurumen jasangarritasuneko gaiei buruzko sentsibilizazioa eta heziketa (klima aldaketa, biodibertsitatea, garapen jasangarria).
- Nafarroako ondare naturalaren eta biodibertsitatearen garapena eta hedapena.

GARRANTZITSUA: Proiektuak Nafarroan garatu beharko dira (garapenerako lankidetzako proiektuak izan ezik).

2.5. DEIALDIAN SARTZEN EZ DIREN GASTUAK:

Nafarroako Kutxa Fundazioak emandako laguntza ezinen da erabili honako hauek ordaintzeko:

- Dibertimenduzko jarduerak eta aisialdikoak.
- Bidaiak, txangoak, otorduak, aperitiboak edo antzekoak.
- Osasun Sistema Publikoaren ardura diren tratamendu edo arreta medikoak.
- Indarreko araudiaren eta legediaren arabera, Administrazioak gauzatu behar dituen jardunak.
- Erakundearen ohiko egoitzako eta gainerako higiezinetakoko mantentze lan arruntak (alokairuak, kontsumoak, zergak, Interneterako konexioak...).
- Azpiegituren erosketa edo inbertsioa, obrak, erreformak edo espazio zein ekipamenduen alokairua (salbuespen dira nazioarteko lankidetzako eta ondarearen kontserbazioko proiektuak).
- Zorren ordainketa edo edozein finantza eragiketaren amortizazioa.

- Erakundeak berreskura dezakeen balio erantsiaren gaineko zerga, eta antzeko beste zerga batzuk.
- Langileen soldatak, baldin eta lanbide arteko gutxienerako soldata baino 3 bider handiagoak badira, kontuan hartuta abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretua, 2017ko lanbide arteko gutxienerako soldata finkatzen duena.

3.- DEIALDIAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Irabazi asmorik gabeko erakundeek aurkeztu ahal izanen dituzte proiektuak, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Egokiro eta oso-osorik betetzea erakundearen izen-emate inprimakia (IFK, helbidea, etab.), web-orri honetan dagoena: www.fundacioncajanavarra.es.
- Legez eratuta egotea irabazi asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatu gisa.
- Nafarroako erakundearen erregistroan izena eman zutenetik gutxienez bi urte igaro izana deialdia aurkezten denean (hau da, 2015eko azaroa baino lehen inskribatuta egotea). Bi erakunde edo gehiagok bat eginda sortu diren erakundearen kasuan, batek behintzat izan beharko du bi urteko gutxienerako antzintasuna.
- Sortze helburuetan jasota izatea aurkeztuko diren deialdiaren gaiarekin lotutako jarduerak egiteko helburua.
- Egokiro justifikatu izana Nafarroako Kutxa Fundazioak aurreko 3 urteetan emandako laguntzak.
- Zerga eta lan betebeharrak egunean edukitzea.
- Ondare materiala kontserbatzeko proiektuetan, proiektatutako esku hartzeen baimena aurkeztea, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirola eta Gazteria Sailak jaulkia.
- Ingurumen arloko proiektuetan, esku hartzeari dagokion baimena aurkeztea, beharrezkoa bada, Nafarroako Gobernuak Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa Sailak jaulkia.
- Deialdi honen xedearekin bat datorren proiektu bat aurkeztea, zehatza eta erakundearen jarduerara orokorretatik berezia.

GARRANTZITSUA:



Baldintza horietakoren bat bete gabe badago, erakundea ez da onartuko deialdian, eta proiektua baztertuta geratuko da.

4.- PROIEKTUAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEAK

Proiektuak aurkezteko prozesua www.fundacioncajanavarra.es web-orrian eginen da, horretarako prestatutako aplikazio informatikoaren bidez. Informazio gehiago nahi izanez gero, helbide elektronikoa honetara idatz daiteke: fundacioncajanavarra@fundacioncajanavarra.es.

Eskatutako agiriak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, deialdia Fundazioaren web-orrian argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Inprimaki guztiak jasotakoan, mezu bat igorriko da erakunde eskatzaileak adierazitako helbide elektronikora, inprimakia jaso dela baieztatzeko.

Erakunde bakoitzak 2 proiektu aurkeztu ahal izanen ditu, gehienez, eta nahi duen moduan banatuko ditu deialdi honetan aurreikusitako ekintza lerroen barruan: Gizarte gaiak, Kultura eta hezkuntza, Kirola eta Ingurumen jasangarritasuna.

Erakundeek ez badituzte beharrezko agiri guztiak aurkezten, edo aurkeztutakoek akatsen bat badute, epe bakar eta luzaezin bat irekiko da horiek zuzentzeko. Epea 10 egun naturalekoa izanen da, eta Nafarroako Kutxa Fundazioak erakundeari gabezien jakinarazpena igortzen dion egunean bertan hasiko da. Jakinarazpen hori helbide elektronikoz eginen da.

Erakundeek gehienez 12 hilabete izanen dituzte proiektuak gauzatzeko: 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra.

Salbuespenezko kasuetan izan ezik, ez da onartuko deialdi honetan babestutako proiektuak gauzatzeko luzapenik; edozelan ere, Fundazioari eskatu beharko zaio luzapena, eta Fundazioak aukera izanen du eskaera onartu edo ukatzeko, egoera bakoitzaren arabera.

Proiektuak egokiro erregistratzea errazteko, Nafarroako Kutxa Fundazioak bere web-orrian ipiniko du proiektuak ongi bete eta aurkezteko gidaliburu bat, baita lanerako dokumentu bat ere, aipatutako aplikazio informatikoan testua idazteko izanen dituzten atalak jasota dituena. Dokumentu horrek ez du inolaz ere balioko proiektuak aurkezteko.

GARRANTZITSUA:

Ez da ez proiekturik ez agiri osagarririk onartuko adierazitako epeetatik kanpo, ezta web-orrian zehaztuta dauden euskarriak ez diren beste batzuetan aurkeztuta ere.

Aurkezpenaren unean, proiektuek egokiro txertatuta egon beharko dute bai ekintza lerroetan, bai lerro bakoitzaren barruko jardun eremuetan.

Nafarroako Kutxa Fundazioak baztertu egingen ditu, zuzentze aukerarik gabe, oinarri hauen 5. atalean adierazitako nahitaezko agirien erdiak, gutxienez, aurkeztu ez dituzten proiektuak.

5.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera www.fundacioncajanavarra.es web-orriaren bidez egingen da, proiektuak aurkezteko aplikazio informatikoa erabiliz.

Erakundeek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Erakundearen IFK.
2. Erakundearen estatutuak.
3. Erakundearen azken ekitaldi itxiaren balantzea, legezko ordezkari batek sinatua.
4. Erakundearen azken ekitaldi itxiko jardueren memoria.
5. Proiektuaren gainerako finantzaketaren ekarpenen ebazpenaren kopia (halakorik badago), edo eskaeraren kopia (ebazpena egin gabe badago).
6. Erakundeko zuzendaritza batzordearen, patronatuaren edo gobernu organoaren akordioa, non onartzen den eskaera deialdira aurkeztea eta adierazita dagoen norik ordezkaturiko duen erakundea proiektuen kudeaketan.
7. Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren edo/eta Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga eta tributu betebeharrak egunean daudela adierazten duena; ziurtagiriak indarrean egon behar du proiektua aurkezteko unean.
8. Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, lan betebeharrak egunean daudela ziurtatzen duena. Dokumentuaren jaulkipen data bat etorri behar du deialdian proiektuak aurkezteko ezarritako epearekin.
9. Erakundea Nafarroako erakundeen dagokion erregistroan inskribatuta dagoela adierazten duen agiria. Administratiboki erakundea Nafarroako Foru Erkidegotik kanpo inskribatuta badago, Nafarroan jardun ahal izateko bertan helbideratutako ordezkariak, egoitza edo agentzia bat duela egiaztatuta beharko du.
10. Ondarearen kontserbaziorako proiektuetarako, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirola eta Gazteria Sailaren ziurtagiria erantsi behar da.



11. Ingurumen proiektuetarako, Nafarroako Gobernuko Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa Sailaren ziurtagiria erantsi behar da.
12. Erakundearen ordezkari gisa arituko den pertsonaren NANA.

GARRANTZITSUA:

Agiri guztiak formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira. Ez dira inolaz ere onartuko agiri fisikoak.

Eskatuz gero, erakundeek jatorrizko agirien bidez frogatu beharko dute aurkeztutako agirien baliozkotasuna.

Proiektuak baloratzeko, Nafarroako Kutxa Fundazioak dokumentazio osagarria eskatu ahal izanen du.

6.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuen balorazioa 100 puntukoa izanen da, gehienez ere, eta puntuak honela banatuko dira:

- 6.1. Proiektuaren kalitatea eta interesa. Gehienez 40 puntu.
- 6.2. Proiektuaren aurrekontu ekonomikoaren egokitasuna. Gehienez 20 puntu.
- 6.3. Proiektuaren eragina gizartean. Gehienez 20 puntu.
- 6.4. Proiektuaren izaera berritzailea. Gehienez 10 puntu.
- 6.5. Proiektua kudeatzen duen erakundearen balorazioa. Gehienez 10 puntu.

GARRANTZITSUA – Gorabeherarik gabeko erregistroa:

Erakundearen nahiz proiektuaren erregistroa egokiro eta zuzendu beharrik gabe betetzen duten erakundeek 5 puntu osagarri jasoko dituzte euren proiektuen azken puntuazioan.

6.1.-. Proiektuaren kalitatea eta interesa:

Kontuan hartuko diren balorazio irizpideak: Gehienez 40 puntu.

- Proiektuaren planteamendua, kalitate irizpideak aintzat hartuta; proiektuaren justifikazioa, premiak objektibotasunez zehaztuta; azalpenaren argitasuna; zehaztutako helburuen, lanerako aurreikusitako metodologiaren, proiektua garatzeko behar diren bitartekoen eta espero diren emaitza espezifikoen arteko koherentzia eta egokitasuna; jardueren eta gauzatze faseen egutegi zehatza (gehienez ere, 15 puntu).
- Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa (gehienez ere, 8 puntu).
- Espero diren emaitza kualitatibo eta kuantitatiboan adierazlearen definizioa (gehienez ere, 2 puntu).
- Proiektuaren diseinua, jarraipena eta ebaluazioa, kalitate irizpideak aintzat hartuta, eta baita proiektuak izanen duen eraginaren ebaluazioa ere (gehienez ere, 3 puntu).
- Proiektuan aurreikusitako jarduerak etorkizunean iraunkorrak izango direla bermatzeko jarraitutasun plana, diru sarrerak sortzeko aurreikusita dauden bide posibleak kontuan hartuko dituen (gehienez ere, 3 puntu).
- Euskararen presentzia proiektuaren gauzatzean eta garapenean, baita haren dibulgazioa eta sustapena ere (gehienez ere, 5 puntu).
- Eragile publiko eta pribatuen arteko sinergiak lortu nahi dituzten lurralde bateko hainbat eragileren arteko lan koordinatu eta osagarria (gehienez ere, 2 puntu).

- Desgaitasunen bat duten pertsonen, gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan daudenen edo gizarte desberdinkeria pairatzeko arriskua dutenen inklusioa (gehienez ere, 2 puntu).

6.2.- Proiektuaren aurrekontuaren egokitasuna:

Kontuan hartuko diren balorazio irizpideak: Gehienez ere, 20 puntu.

- Koherentzia ekonomikoa. Diru sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua, eta banaketa ekonomikoa egokia aurreikusita dauden kontzeptuetako bakoitzarentzat. Proiektuko aurrekontu partida bakoitzaren xehakapena (gehienez ere, 12 puntu).
- Proiektuaren kofinantzaketa eta berezko baliabideen ekarpena dokumentatu egin beharko dira (gehienez ere, 4 puntu):

% 50 baino gehiago	4 puntu
% 40tik % 50era	3 puntu
% 30etik % 40ra	2 puntu
% 30era arte	1 puntu

- Eskatutako laguntzaren ehunekoa, proiektuaren guztizko kostuari dagokionez (gehienez ere, 4 puntu):

% 45era arte	4 puntu
% 45etik % 55era	3 puntu
% 55etik % 65era	2 puntu
% 65etik % 75era	1 puntu

6.3.- Proiektuaren eragina gizartean:

Kontuan hartuko diren balorazio irizpideak: Gehienez ere, 20 puntu.

- Proiektuak jomugatzat duen biztanleriari begira izanen duen zuzeneko jarduna, baita haren onura zuzenean jasoko duten pertsonen profila eta kopurua ere, datuak sexuaren arabera bereizita (gehienez ere, 6 puntu).
- Erakundeak proiektua hedatzeko duen gaitasuna. Proiektuaren eta aurreikusitako jardueren komunikazio plan zehatza (gehienez ere, 3 puntu).
- Partaidetzaren sustapena, gizarte eragileen eta onuradunen rol aktiboa eta balio ekarpena bultzatuta proiektuaren ziklo osoan (gehienez ere, 4 puntu).
- Proiektuari esker sortu edo mantenduko diren lanpostuen kopurua, arreta berezia eskainita emakumeen ehunekoari edo laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen ehunekoari (gehienez ere, 4 puntu).
- Irigarritasun irizpideak kontuan hartzea proiektua gauzatzean (gehienez ere, 3 puntu).

6.4. Proiektuaren izaera berritzailea:

Kontuan hartuko diren balorazio irizpideak: Gehienez ere, 10 puntu.

Jardunbide berritzaileak garatzea alderdi hauei dagokienez:

- Genero ikuspegiaren txertatzea proiektuan (gehienez ere, 2 puntu).
- Proiektuko beharrak eta parte hartuko duten eragileak (gehienez ere, 2 puntu).
- Erabiliko den metodologia (gehienez ere, 2 puntu).
- Onura jasoko duten pertsonak (gehienez ere, 2 puntu).
- Gizarte eraldaketa (gehienez ere, 2 puntu).

6.5.-. Proiektua kudeatzen duen erakundearen balorazioa:

Kontuan hartuko diren balorazio irizpideak: Gehienez ere, 10 puntu.

- Erakundearen ahalmen ekonomiko-teknikoa eta proposatutako proiektuari begira duen esperientzia. Erakundearen egonkortasuna eta ibilbidea, deialdiko xedeari dagokionez (gehienez ere, 3 puntu).
- Memoria ekonomikoa eta jarduerena jakitera ematea eta hori eskuratzeko erraztasunak ematea. Gardentasun neurriak eta kontuak emateko neurriak txertatzea (gehienez ere, 1,5 puntu).
- Erabiltzaile kopuru zabala eta esanguratsua duela frogatzea, eta herritarrei zer jarduera gauzatzen dituen eta zer premiei erantzuten dien jakinaraziz kopuru hori handitzeko lan egiten duela erakustea. Boluntarioak eta boluntariotza plana izatea, eta plan hori egokiro kudeatzen dela frogatzea (gehienez ere, 2 puntu).
- Diru sarrerak dibertsifikatuz orain eta etorkizunean iraunkorra izateko lan egiten duela frogatzea. Kudeaketaren kalitatea eta ahalmena frogatzea (EFQM/ISO/Kudeaketa Aurreratua) (gehienez ere, 1,5 puntu).
- Erakunde eskatzaileko zuzendaritza karguetan edo erantzukizun karguetan dauden emakumeen ehunekoa (gehienez ere, 1 puntu).
- Erakunde eskatzaileak onartuta izatea Genero Berdintasuneko Plana (gehienez ere, 1 puntu).

7.- NAFARROAKO KUTXA FUNDAZIOAREN EKARPENA

Nafarroako Kutxa Fundazioak 1.800.000 euroko ekarpen ekonomikoa egingen du, gehienez, laguntzak emateko deialdi honetan. Kopuru hori honela banatuko da:

- Gizarte gaiak: 1.080.000 euro
- Kultura eta hezkuntza: 450.000 euro
- Ingurumen jasangarritasuna: 90.000 euro
- Kirola: 180.000 euro.

Aurkeztutako proiektuek ez badute esleituta duten zenbatekoa oso-osorik banatzeko behar adina kalitate, Nafarroako Kutxa Fundazioak ez du zertan agortu ekintza lerro bakoitzerako aurreikusita dagoen aurrekontua. Soberakinik izanez gero, Nafarroako Kutxa Fundazioak bere helburuak lortzeko egoki deritzen proiektu edo ekintzetara bideratuko ditu.

Deialdi honetan, proiektu bakoitzak 20.000 euro jasoko du, gehienez. Nafarroako Kutxa Fundazioaren ekarpenak ezinen du gainditu proiektuaren kostu osoaren % 75.

Era berean, berrikuntza sustatzeko asmoz, gehienez ere 5.000 euroko ekarpen ekonomiko gehigarria emanen zaio, lau ekintza lerroetako bakoitzean, izaera berritzailearengatik nabarmentzen den proiektuari. Horretarako, deialdi honetako 6.4. puntuko adierazleak hartuko dira kontuan.

Fundazioak ez du nahitaez egin beharko aitorpen hori. Proiektuen izaera berritzailearen balorazioaren arabera izanen da, eta eman gabe gera daiteke.

8.- DEIALDIAREN EBAZPENEA

- Deialdi honetara aurkezteak esan nahi du onartu egiten direla bai oinarriak, bai ebazpena. Laguntza jasoz gero, 2018. urtera mugatuta egonen da, eta ez du inolako aurrekaririk ezarriko hurrengo urteetarako.
- Agentzia Ebaluatzaile batek aztertu eta baloratuko ditu proiektuak, oinarri honetan ezarrita dauden baldintzen eta irizpideen arabera, eta esleipen proposamen bat aurkeztuko dio Nafarroako Kutxa Fundazioko Patronatuari.
- Fundazioko Patronatuak Agentzia Ebaluatzailearen esleipen proposamenaren gainean erabakiko du, eta haren erabakia apelaezina izanen da.
- Behin betiko esleipen ebazpena 2018ko otsailean argitaratuko da, eta posta elektronikoz jakinaraziko zaie deialdian aurkeztutako erakunde guztiei.
- Erakunde esleipendunen zerrenda, ekintza lerroka antolatuta, Nafarroako Kutxa Fundazioaren web-orrian argitaratuko da (www.fundacioncajanavarra.es).

9.- LANKIDETZAREN FORMALIZAZIOA

Proiektuei laguntzak esleitu ostean, erakunde bakoitzak lankidetzaren formalizatuko du, Nafarroako Kutxa Fundazioaren web-orrian horretarako aurreikusita dauden baldintzak onartuta. Baldintza horiek 2018ko abenduaren 31ra arte izanen dira indarrean.

Baldintza horiek Erakundearen eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmen baten eragin berbera izanen dute, eta honako hauek zehaztuko dituzte: aldean eskubideak eta betebeharrak, lankidetzaren iraunaldia, emandako laguntzaren zenbatekoa, ordainketa tokia eta modua, proiektuaren jarraipena egiteko prozedura, gastuen justifikazioa, fakturak egozteko epea, Proiektuaren Azken Memoria aurkezteko epeak, lankidetzaren eteteko arrazoiak eta lankidetzaren hedapena.

Baldintzak onartzeko unean, erakunde bakoitzak honako hauek erantsi beharko ditu: sinatzen duenaren/legezko ordezkariaren NANaren fotokopia, lankidetzaren izenpetzeko dituen eskumenak eta dagokion finantza erakundeak jaulkitako ziurtagiria, non egiaztatzen den erakunde esleipenduna dela proiektutik eratorritako ordainketak egiteko erabiliko den kontuaren titularra.

Era berean, erakundeek proiektuaren behin betiko aurrekontua bete beharko dute baldintzak onartzeko unean. Esleitutako zenbatekoarekin bat etorrira eta Nafarroako Kutxa Fundazioak emanen dien eredu baten arabera bete beharko dute.

Ebazpena jakinarazi zenetik bi hilabete igarota ez badira onartu lankidetzaren baldintzak, erakundeak eskatutako laguntzari uko egin diola ulertuko da.

Onartutako baldintzak betetzen ez badira, lankidetzaren eten eginen da, eta Nafarroako Kutxa Fundazioak ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskatu ahal izanen du.

10.- LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Proiektuaren justifikazioa Nafarroako Kutxa Fundazioak www.fundacioncajanavarra.es web-orrian ipiniko duen aplikazioaren bidez egin beharko da. Inprimaki ekonomiko bat izanen da, eta horri erantsi beharko zaizkio gauzatutako proiektua justifikatzeko fakturak eta proiektuaren azken memoria jasoko duen txantilo bat.

Proiektuaren kudeaketa eta administrazio gastuetara Nafarroako Kutxa Fundazioak emandako zenbatekoaren % 10 bideratu ahal izanen da, gehienez ere.

Emandako laguntza hiru zatitan ordainduko da: lehenengo ordainketa, zenbatekoaren % 40, lankidetzaren formalizatu eta eskatutako agiri guztiak behar

bezala aurkeztutakoan egingen da, automatikoki; bigarrena, zenbatekoaren % 30, justifikazio ekonomikoa egin eta tarteko jarraipen txostena (emandako zenbatekoaren % 70arena) aurkeztutakoan, eta azken ordainketa, gainerako % 30a, proiektuaren azken memoria eta gastuen egiaztagiriak aurkeztu eta onartutakoan.

Euren ezaugarriengatik edo gauzatze epeengatik justifikazio osoa batera eta tarteko faseak egiaztatu beharrik gabe (ekitaldia eta jarduera zehatzak...) aurkez dezaketen proiektuek izapide bakar batean egin ahal izanen dute proiektu osoaren justifikazio prozesua. Horrelakoetan, proiektuaren azken memoria eta ekarpen ekonomiko osoa egokiro aplikatu dela dioen balorazioa aurkeztu beharko dituzte.

Proiektuak justifikatzeko epea laguntza behar bezala formalizatu eta hura emateko baldintzak onartu bezain pronto hasiko da.

Laguntzaren zenbatekoa erakunde eskatzailea titulartzat duen kontu batean ordainduko da. Erakundeak hitzematen du proiektua kontu horretatik kudeatuko dela.

Nafarroako Kutxa Fundazioak proiektua gauzatzen ari dela egiaztatzeko eta kontu ematearen gardentasuna bermatzeko beharrezkoa den dokumentazioa eskatu ahal izanen du, edozein unetan, bisita bidez, auditoretza txostenaren bidez edo beste bide batzuk erabiliz.

Proiektuaren azken memoriak gehienez ere 20.000 karaktere izanen ditu, espazioak barne (kanpo utzita dokumentazio ekonomikoa), eta honako hauek jasoko ditu:

- Egindako jardueren deskribapena.
- Helburuen betetze maila.
- Lortutako emaitzak.
- Gizartean lortutako eragina.
- Hirugarrenek proiektuari egindako ekarpen ekonomikoak.

Amaierako justifikazioa adierazitako baldintzak betez egin beharko da, eta horretarako 90 egun natural izanen dira, gehienez, 2018ko abenduaren 31tik aurrera.

Erakunde batek ez badu betetzen deialdi honetako oinarrietan ezarritakoa, edo egiaztatzen bada aurkeztu dituen datuak faltsuak direla edo diru laguntza emateko kontuan hartu diren helburuak aldatu egin direla, laguntza galduko du, eta, horrez gainera, jasotako dirua itzuli beharko du, eta hurrengo deialdietatik kanpo geratuko da.

GARRANTZITSUA

Garapenerako lankidetzako proiektuen kasuan, tokiko bazkidea nazioarteko erakunde bat baldin bada, erakunde eskatzaileak Espainiak izenpetuta dituen nazioarteko akordio edo itunetan ezarrita dagoenaren arabera justifikatuko du.

Nazio Batuetako nazioarteko erakundeei finantzatutako proiektuari egindako transferentzien egiaztagiriak eskatuko zaizkie, justifikazio gisa, eta berauei dagokien kontabilitate kontrol espezifikoa ere aurkeztu beharko dute, berauen araudi berezian eta estatu kideek Nazio Batuen agentzietarako ezarrita duten funtzionamenduan jasota dagoena.

11.- LANKIDETZAREN HEDAPENA

Deialdi honetako erakunde onuradunek berariaz adierazi beharko dute Nafarroako Kutxa Fundazioaren laguntza jasotzen dutela. Betebehar horrek barne hartzen ditu erakundeak erabiltzen dituen komunikazio euskarri guztiak, bai papereko euskarriak (ekitaldi egitarauak, kartelak, memoriak, liburuxkak, plakak, prentsa oharrak...), bai on-line euskarriak (web-orriak, blogak, sare sozialak...).

Nafarroako Kutxa Fundazioaren irudia egokiro erabiltzen dela ziurtatzeko, erakundeek irudia erabiltzeko oharrei helduko diete. Ohar horiek erakunde onuradunen esku jarriko dira gure web-orrian, laguntza emateko bete behar diren baldintzak onartu ostean.

Era berean, proiektuaren baitako ekitaldien eta gertaeren berri emanen dute, baita Nafarroako Kutxa Fundazioak babestutako proiektuaren inguruan antolatzen dituzten prentsaurrekoen edo ekitaldi publikoen berri ere.

12.- DATUEN BABESA ETA INFORMAZIOAREN TRATAERA

Erakundeek Fundazioari jakinarazten dizkioten datu pertsonalak "ERABILTZAILEAK" izeneko fitxategian sartuko dira, deialdi honetako erakunde onuradunek emandako datu pertsonalak kudeatzeko, datu horiek beharrezkoak baitira erakundeak ebaluatzeko eta deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuz. Fitxategi horren titularra Nafarroako Kutxa Fundazioa da, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Erregistro Orokorrean inskribatuta dago.

Eskatutako datuak beharrezkoak dira erakundeak eta laguntza jasoko duten proiektuak ebaluatzeko; hortaz, horiek emateari uko eginez gero, ezinen dira laguntza hauek eskuratu.

Datuak konfidentziasunez eta modu seguruan erabiliko dira, datuen babeserako araudiak eskatzen duen moduan, eta ez zaizkio beste inongo erakunde publiko edo pribaturi utziko, salbuespen bakarrak izanik kanpo Agentzia Ebaluatzailea eta lege ezarrita dauden egoerak.

Erakundeek bermatu egin beharko dute emandako datuen egiazkotasuna, eta hitzemanen dute Nafarroako Kutxa Fundazioari jakinaraziko dizkiotela horien aldaketa garrantzitsuak.